

Behorlegiko Santa Grazia kapera

E.: Andre dena Mari duzue zuek herriko patroina.

J.: herriko patroina.

E.: eta Andre dena ariz hemen egiten da edo egiten zen...

J.: meza nausia iten ginixin, hamar onetako edo hameka onetako meza ua, eta bezperak e hemen zitxun ordian, ta herriko besta egunian e ba, bestenez beti Mendiben zuxun meza nausia ta bezperak, apeza re han egoiten baitzen, Mendiben.

E.: usaia orrek segitzen du beti gaur egun? Andre dena Mariz hemen meza bada?

J.: ez, ez, herriko besta egunian bauxu meza nausia, hori bauxu, bena ez Andre dena Mariz ez geio, etxu apezik gaixoa oai, baixie lan ba oaiko apezek, e?

E.: eta herrian duzien kapera ori...

J.: ba, hor urte guzietz guk beti ezautu ixiu bazkotik ondoko igandian iten duxu meza hor, ta lehen, gure denboran, iten zuxun prosazionia re, aitzineko hamoostian, hua aspaldi utzia uxu e, bana meza hori beti iten duxu, ta gero beherian gaztek ofreitzen dixie aperitifa, ta hara, gero auzo herritaik-eta, ba, jiten txu.

E.: kaperak nola du izena?

J.: Santa Grazia. Santa Graziako beilla erten dixiu, ara.

E.: zendako iten da beilla ori?

J.: guk intzun duunaz beti, haur, partikulazki, gure denboran e, haur ttipiak eta eremaiten zitxun, galditeko osaarria ta, peestutasuna, ta nik dakita.

E.: beti or ikusi duzu zuk kapera ori?

J.: ha ba ba, beti, ene aitak noizbait erranik, hori re ohit dixit, kapera horren teillatia makurtuik egon zuxun, ordian ez zuxun iten mezaik, bena ori, hain denborakoa edo, hain denbora bano leenokoa re, eta erraiten zutela herri untan harri erauntsiak iten zitiela kapera ori egon zeno teillatia berritzeko, hori re oit nuxu aitari intzunik.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala